

**EUSKAL
HERRIA
BATERA**

APIRILAK 12
ABERRI EGUNA
2020

Euskal Herria batera

Aurtengo Aberri Eguna ezin dugu kalean egin, osasun larrialdia medio. Ezintasun horrek berak, ordea, aukera ematen digu euskal nazioaren eguna Euskal Herri osoan eta BATERA egindako keinu batekin ospatzeko eta, aldi berean, larrialdi honetan bizia galdu dutenak omentzeko, dolua adierazteko eta zaintzan dabiltzanei denon esker ona adierazteko.

Osasun itxialdiaren zama arintzeko, BATERA irteten ari gara etxeetako balkoietara eta lehioetara, kantuan egiteko eta txalo jotzeko. Elkarrekin aldi berean egindakoak babesa eta indarra ematen digulako. Euskal Herrian BATERA egiten dugunak elikatzen du sendotu nahi ditugun komunitate sentimendua eta herri kontzientzia.

Horregatik, proposatzen dugu 2020ko Aberri Egunean Euskal Herri osoan eta BATERA ikur kolektibo bat osatzea eta elkarrekin kantuan egitea. Horrela aldarrikatuko dugu euskal herritarren, lurraldeen eta administrazio esparruen jardunentzat jomuga bateratua nahi dugula. Elkarrekin eraikitako egitasmo partekatuak emango diola gure herriari behar duen etorkizuna. Eta, gaur egun, nazio eraikuntzak behar duela oinarrian komunitate bat, guztion bizitza duina eta eskubide oinarrizkoak bermatuko dituen; eta baita pertsonen arteko berdintasuna nahiz elkarrenganako zaintza eta errespetua sustatuko dituen.


Krisialdi honetan euskal komunitateak bere indarra erakutsi du, berriro ere. Oinarri horren gainean, eta etorkizuneko erronkei begira, lankidetzaz aldarrikatu nahi dugu erakunde, eragile eta herritarren artean, bakoitzak bere ahotsari uko egin gabe gai izan gaitezen BATERA jarduteko, egoerak hala eskatzen duenean. Eztabaida demokratikoaren gainean eraikitzen den lankidetzak indartuko baitu gure herri izaera, sentimendu eta nortasun desberdinekin osatua. Indar horrek eramango du gure herria erabakimena duten herri libreerik dagozkien eskubide politikoen jabe izatera.

Jar dezagun, beraz, EUSKAL HERRIA BATERA ikur bat osatzen, eta bakoitzak bere desioak adieraziz egindako argazkiekin josi dezagun mosaiko digital erraldoi bat, Aberri Egunean sare bidez mundura zabalduko dena.

Eta jar dezagun EUSKAL HERRIA BATERA kantuan, egun eta ordu berean euskal irratien emankizun bereziari jarraituz,, ikurrinez eta Nafarroako banderez apaindutako balkoietan.

Baliatu dezagun 2020ko salbuespen egoera hau Aberri Egunari zeregin berri bat emateko: euskal komunitateko kide sentitzen garen guztioi erabakimena, garapen kolektibo eusgarria eta berdinzalea emango ligukeen Euskal Herria aldarrikatzea. Zinez sinesten dugulako, eskubide guztien jabe izango den gure nazioa eraikitzean, mundua hobetzen ari garela guri dagokigun partean.

EUSKAL HERRIA BATERA.



**EUSKAL
HERRIA
BATERA**

APIRILAK 12
ABERRI EGUNA
2020

Talde sustatzailea

Grupo promotor

Groupe de soutien

1. **Ainhoa Aiensa Laborda**, Supermerkatu baten langilea. Iruñea, Nafarroa Garaia.
2. **Aitor Servier Etxexuri**, Bertsolaria. Azkaine, Lapurdi.
3. **Amaia Merino Unzueta**, Zinemagilea. Barañain, Nafarroa Garaia.
4. **Amaia Nausia Pimoulier**, Historialaria. Iruñea, Nafarroa Garaia.
5. **Angel Oiarbide Ruiz**, Arkitektu teknikoa. Idiazabal, Gipuzkoa.
6. **Basilio Garcia Mayo**, Udaltzaina. Amurrio, Araba.
7. **Carlos R. Etxepare Rambosio**, Kazetaria. Buenos Aires, Argentina.
8. **Carlos Martinez Etxeberria**, Ikaslea. Murchante, Nafarroa Garaia.
9. **Cristina Jacas Mateu**, Suhiltzailea. Soraluze, Gipuzkoa.
10. **Estitxu Garai Artetxe**, Publizista. Gordexola, Bizkaia.
11. **Gaizka Aranguren Urrotz**, Kazetaria. Iruñea, Nafarroa Garaia.
12. **Iker Villa Baraja**, Musikaria. Barakaldo, Bizkaia.
13. **Iñaki Dorronsoro Plazaola**, Eusko Ikaskuntzako lehendakaria. Ataun, Gipuzkoa.
14. **Iñaki Pujana Aguirre**, Garraiolaria. Dima, Bizkaia.
15. **Iratxe Gonzalez Morcillo**, Medikua. Portugalete, Bizkaia.
16. **Josu Camara Izagirre**, Aktorea. Lezama, Bizkaia.
17. **Kike Amonarriz Gorria**, Euskaltzalea. Tolosa, Gipuzkoa.
18. **Maddalen Arzallus Antia**, Bertsolaria. Hendaia, Lapurdi.
19. **Maialen Sáez de Okariz Ruiz de Sabando**, Erizaina. Gasteiz, Araba.
20. **Marijo Monco Garcia**, Garbitzailea. Lezo, Gipuzkoa.
21. **Markel Susaeta Laskurain**, Futbolaria. Eibar, Gipuzkoa.
22. **Mario Zubiaga Garate**, EHU-UPVko irakaslea. Durango, Bizkaia.
23. **Mikel Irizar Intxausti**, Jubilatua. Elorrio, Bizkaia.
24. **Nerea Loron, La Furia**, Abeslaria. Cascante, Nafarroa Garaia.
25. **Pello Otxandiano Kanpo**, Injenieroa. Otxandio, Bizkaia.
26. **Terexa Lekunberri Indart**, Antropologoa. Ortaize, Nafarroa Beherea.
27. **Xabier Barandiaran Irastorza**, Soziologoa. Ataun, Gipuzkoa.